

HAUTAKETA-PROZESUA

EUSKARAKO 2 IRAKASLE NORMALIZATZAILE

Bigarren ariketa: proba praktikoa

2025-11-14

Idatzizko proba

Oharrak:

- Proba burutzeko denbora: 3 ordu
- Gehieneko puntuazioa: 40
 - Zeregin eta testuinguruarekiko egokitasuna: 32 puntu, gainditzeko 16 puntu eskuratu beharko dira gutxienez.
 - Hizkuntza zuzentasun eta aberastasuna: 8 puntu, gainditzeko 4 puntu eskuratu beharko dira gutxienez.
- Gainditzeko gutxienerako puntuazioa: 20
- Zereginari eta hizkuntzari lotutako bi atalak gainditu behar dira.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zenbateraino erantzun zaion eskatutakoari
- Azalpenen egokitasun- eta sakontasun-maila
- Edukien arteko harremanen eta lotura kontzeptualen garapen-maila
- Gogoeta pedagogikoa: ikuspegi didaktikoaren aplikagarritasuna
- Hizkuntza zuzentasuna eta aberastasuna

IDATZIZKO PROBA

Egoera

Euskaltegira etorri berriak diren irakasleek ebaluazioari ematen zaion trataera argi eduki dezaten, **ebaluazio-prozesuaren** gako eta prozedura nagusiak biltzen dituen **azalpen-gida** bat sortzea erabaki du Eibarko Udal Euskaltegiak, HEOCak, EEMBak eta Euskaltegiaren Curriculum Proiektuak dioenetik abiatuz:

Ebaluazioaren definizioa

Ikaste eta irakaste prozesuaren baitan sortzen den informazioaren bilketa sistematikoa da ebaluazioa; batetik, prozesu horren alderdi guztien deskribaketa osoa eta zehatza emango duena, eta, bestetik, deskribaketari buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiko dituen, betiere hobekuntzari begira. (Eibarko UEaren ECPa, 67. or.)

Egitekoa

Idatzi ikas-irakas prozesuan kontuan hartu beharreko **ebaluazioaren** gako eta prozedura nagusiak biltzen dituen **oinarrizko azalpen-gida**¹ eta erantsi ebaluazioari buruzko zeure gogoeta didaktikoa (ikuspegi didaktikoaren aplikagarritasuna dela-eta), euskaltegira etorri berriak diren irakasleei lagungarri gerta dakien.

Azalpen-gida osatzeari begira, besteak beste, garatu ondorengo puntu hauek:

- Ebaluazioaren oinarri metodologikoak eta gako nagusiak
- Ebaluazio-aldiak
- Ebaluazio-motak
- Ebaluazio-euskarriak
- Ebaluazioari buruzko zeure gogoeta didaktikoa

Gutxieneko luzera: 300 hitz.

¹ Azalpen-gidak ez du eskema edo egitura zehatz bat jarraitu beharrik; gida horren formatua librea da.